



EUSKARA OFIZIALA NAFARROA OSOAN, BEHINGOZ

2018/10/27

Herritarren hitzartzeak. Unai Arellano, Nekane Otamendi eta Saioa Crespo

Kohesioa

Hiztegiak dio kohesioa dela elementu guztiak elkartuak dituen multzo baten ezaugarria. Hiztegiak ere badio barneko erakarpen horrek eragozten duela tentsio batek batasun hori haustea.

Bada, gure multzoa, Nafarroa, zatituta dago lege bidegabe baten erruz. Vasuencearen Legea zena, orain Euskararen Legea, da tentsio horren eragilea. Lege horren eraginez, Nafarron hizkuntzaren lurraldea ez da osorik ageri, eta ukatu egiten digu euskararen bidez Nafarroa josteko aukera.

Euskara da nafarron artean zubi eta atxikidura egiteko osagai ederra. Nafarroako berezko hizkuntza da euskara, eta euskara da batuko gaituen arragoa. Batasun hori behar dugu.

Berdintasuna

Gu nafarrak gara ala ez gara? Jakina bagarela! Eta orduan, zergatik tratatzen gaituzte ezberdin hizkuntzaz ari garenean?

Vasuencearen Legea zenak, orain Euskararen Legea, Pertsonak klasifikatzen ditu. Hizkuntza zonifikazioak, kategorizatu egiten ditu nafarrak. Eskubideak aitortuta dituztenen eta eskubiderik ez dutenen arteko bereizkeria eragiten du legeak.

Nafarrei hizkuntza eskubideen berdintasuna aitortzea, pertsona guztien duintasuna zaintzea da.

Justizia

Nafarren arteko asimetria horiek bidegabeak dira, eta Vasuencearen Legea zenak, orain Euskararen Legeak, naturalizatu egin ditu.

Baina ez da naturala euskaldunok pairatzen dugun bidegakeria. Justizia eskatzen dugu, demokrazia eskatzen dugu, ez gehiago ezta gutxiago ere.

Gaur hemen bildu garen nafarrok desio dugu gure ondorengoek gogoratzea nola lortu zen garai honetan benetako aldaketa Nafarroan, eta nola hasi zen bidezkoagoa izaten euskaldunokin. Ezin da utzi zortearen edo kasualitatearen baitan utzi eskubideen bermea.